

E-mailaren titulua (Gaia): Bira-bira programa berria abian da

## Nafarroako Antzoki Sareko zazpi kidek parte hartuko dute *Bira-bira* programa berrian

*Euskaraz eta haurrentzako bi ikuskizun eskainiko dituzte Nafarroako zazpi antzertokitan*

[Nafarroako Antzoki Sarea](#)ri atxikitako zenbait agertokik *Bira-bira* programa berrian parte hartuko dute; Agoitz, Bera, Etxarri-Aranatz, Uharte, Irurtzun, Lesaka eta Olaztiko Udalek osatzen dute. Programa honek arte eszeniko profesionalen eta familia osoarentzako euskarazko lanak antzokietan taularatzea du helburu.



Programa urte osoan zehar garatuko da, kulturgune bakoitzaren egutegira egokitua. Izan ere, ikuskizun batzuk dagoeneko ikusi izan dira Irurtzun, Etxarri-Aranatz eta Olaztin.

Olaztik bi ikuskizun izanen ditu. Gainerakoek (Agoitz, Bera, Etxarri-Aranatz, Uharte, Irurtzun eta Lesaka) ikuskizun bakarra.

2017an programa honetan ondoko lan hauek parte hartuko dute: *Peter Punk* (TDiferencia konpainia) eta *Titirikontu kontari* (Gorakada)

Hona hemen hurrengo hilabeteetako datak:

LANA	HERRIA	DATAK
<i>PETER PUNK</i> (TDiferencia)	BERA	Urriaren 29a
<i>TITIRIKONTU</i> <i>KONTARI</i> (Gorakada)	OLAZTI	Irailaren 24a

	ETXARRI-ARANATZ	Urriaren 21a	
	AGOITZ	Urriaren 22a	
	UHARTE	Urriaren 28a	
	LESAKA	Azaroaren 5a	

Ikuskizunen inguruko informazio gehiago eskuratzeko:

**Peter Punk:** [http://www.tdiferencia.com/obra.php?PETER\\_PUNK](http://www.tdiferencia.com/obra.php?PETER_PUNK)

**Titirikontu kontari:** <http://www.gorakada.com/EnCartel/obras/show/Titirikontu-kontari>